



Liburuari etekin didaktiko hobe ateratzeko **ideiak**

Liburu honen helburua ez da inolako edukirik buruz ikastea hezkuntza, gogoeta eta elkarrizketa esparrutan; gurekiko desberdinak diren horiekin batera enpatia-esperientzia etiko bat bizitzea baizik. Liburuak bi zati ditu eta bakoitzak aukera desberdinak eskaintzen ditu.

1. Liburuaren lehen zatia

Erlijio, kultura, zibilizazio eta ideologia desberdinen arteko elkarguneak errazteko proposamena jasotzen du. Proposamenarekin, solasaldirako tarte hartuz, gai honen inguruan lana egin liteke. Helduekin eta 15-16 urtetik gorako gazteekin talde gogoeta egiteko bereziki egokia da. Elkartean, institutuetan, irakasle klaustroetan, GKEetan, parrokia taldeetan, aisialdi taldeetan, unibertsitateetan eta abarretan susta liteke elkarrizketa. Taldea zenbat eta anitzago izan hobe. Proposatzen diren galderen helburua ez da adostasunetara edo erantzun itxietara iristea, baizik eta bakoitzaren bizipenetik gogoeta elkarrekin egitea. Elkarrizketa sustatzeko proposa ditzakegun galderak ondorengoak dira:

- 1.** Pertsona bere barruan eta kontrolatzen duen horretan isteko dago munduan ala bera gainditzen duen horretara irekitzeko?
- 2.** Espiritualitatea gizaki guztion berezko ahalmena da ala erlijioaren baten jarraitzaile direnena bakarrik?
- 3.** Zer da etika eta zer esan nahi du praktikan, bizitza gidatzeko lehena da ala ez?
- 4.** Nigan eta nire inguruan gizaki mugatua naizela adierazten duen hori guztia onartzeko gai al naiz? Guztiok gaitasun bera dugu?
- 5.** Nire bizitzan aparteko opari delako esker ona merezi duena ezagutzeko gai al naiz? Guztiok gaitasun bera dugu?
- 6.** Zer da kontzientzia? Etikoki joka al dezaket nire kontzientzia sakonean eta egiaz entzun gabe? Guztiok gaitasun bera dugu?
- 7.** Zer da giza duintasuna? Guztiok gaitasun bera dugu?
- 8.** Gehien gaitzesten dudanarengan giza duintasuna ikusteko gai naiz?
- 9.** Gure nortasun erlijioso eta kulturalari uko egin gabe, zer konpartitu dezakegu gizaki guztiok?
- 10.** Zein da erantzun hauen aplikazioa gure bizitzan eta ingurunean?

Elkarrizketa hau garatzean, lehenetasuna erantzun desberdinak entzutea izango da, guztiek parte har dezaten saiatuz eta erantzunak adimenetik eta ideologiatik baino bizipenetik eta esperientziatik adieraz daitezzen saiatuz. Norbaitek moderatzaile edo dinamizatzaile lanak egitea komeni da (*).

Elkarrizketaren iraganean, helburua ez da bakoitzak esandakoa eztabaidatzea, kontrakoa esatea edo aurka egitea, baizik eta entzutea, hobeto ulertzeko galdetzea eta azkenik bat-etortzeei adi egotea. Seguru aski, giza-talde mugatu horretan sortzen diren bat-etortzeak elkartzen baditugu, munduan konpartitu daitezkeen elkarguneak proiektatzen ariko gara. Sakonean oso antzekoak garelako gertatzen da hau, imajina dezakeguna baino askoz antzekoagoak.

2. Liburuaren bigarren zatia

Bakearen aldeko erlijio eta kultura desberdinetako 80 testu eta erregu ditu. Material honen erabilpen didaktikoa edozein adinerako eta elkarte testuingururako da egokia. Material honekin lan egiteko ideia batzuk proposatuko ditugu, praktikan, jolas eran 10-12 urteko eskola-umeekin lan egingo dela imajinatuz. Dena den, iradokizun hauek beste adinetara eta taldeetara ere egokitu daitezke: familiak, elkarteak, GKEak, parrokiak, unibertsitateak...

A. Bestea ezagutu

Interneten beste kulturei eta erlijioei buruzko informazioa bilatu eta lokalizatu. Hauekin guztiekin mapamundi bat eta ezaugarri nagusien fitxa batzuk egin: noiztik dauden, zenbat pertsona biltzen dituzten, hizkuntzak eta beren erlijio-erreferentzia nagusia nor den. Eskolara beste erlijio edo kultura bateko norbait (edo talde bat) gonbida dezakegu hartaz hitz egin diezagun.

B. Bestea entzun

Seguru aski, gure eskolan edo gelan izango da beste erlijio bateko edo kulturako ikasleak. Beren hizkuntzan testuak edo erreguak irakurtzeko eska diezaiekegu. Testu bakoitza hizkuntza desberdinetan irakurriko dugu. Gainerako eskolakideek kulturari, ohiturari eta sinesmenei buruz galde diezaiekete hauek gehiago eta hobeto ezagutzeko.

C. Bestearen lekuan jarri

Ikasle guztien artean erlijio eta kultura desberdinak banatuko ditugu eta bakoitzak egokitu zaiona irudikatuko du. Bere historia eta ezaugarri garrantzitsuenei buruzko informazioa eman, liburuan agertzen diren erlijio ala kultura horretako testuak ozen irakurri eta honi buruz dakien beste azalduko du. Testuak pertsona ezagunenak direnean gauza bera egingo da, pertsona hori nor den adieraziz.

D. Besteari ireki

Eskolan edo inguruan erlijio edo kultura desberdinetako pertsonak ditugula kontuan hartuz eta honetaz baliatuz, hauekin bilduko gara elkarrekin zerbait egiteko. Pertsona honek bere herriko zerbait erakutsiko du: abestiren bat, jolasen bat, jaki tipikoren bat, ohituraren bat eta guztion artean egingo dugu. Bertako ikasleek hemengo gauza bereizgarriren bat aukeratu eta pertsona honi erakutsiko diote.

E. Ondorioak

Jolas hauek egin ondoren, ikasleei bi ekintza proposa diezazkiekegu. Lehenik, izan dituzten sententziak eta ikasi dutena idatz dezatela eskatu. Bigarrenik, elkarrizketa ireki, hori guztia konpartitzeko.

baketik
arantzazu

(*) 2008ko irailean «Zeurekin eta besteekin bizitzea. Oinarrizko lau ikaskuntza» (Alianza Editorial) liburua argitaratuko da. Pertsona honi hau irakurtzeak asko lagunduko dio.